


Medio Ambiente, un compromiso con generaciones futuras



Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA 2017

*Ingurumen Sailburuordetza
2017ko urtarrila, erreb.: 0*

1.	SARRERA	3
2.	2011-2018 ALDIRAKO INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PLANA BERRIKUSTEA 3	
3.	2017KO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	5
2.1.-	2017KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK	7
2.2.-	2017KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA XEDEAK.....	8
1.	HELBURUA: IPPC JARDUEREN ARAUDIA JARRAITASUNEZ BETETZEA.	8
2.2.1.-	01/2017 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	8
2.	HELBURUA: ARRISKU HANDIENA DUTEN ETA IPPC EZ DIREN JARDUEREN INGURUMEN-ARAUDIA BETETZEA.....	9
2.2.2.-	02/2017 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua	9
2.2.3.-	03/2017 Proiektua: ILEak ikuskatzea	10
4.	HELBURUA: HONDAKIN ETA LURZORUEN ARAUDIA BETETZEA.....	10
2.2.4.-	04/2017 Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea	10
2.2.5.-	05/2017 Proiektua: Hondakinen lekualdaketa.....	11
2.2.6.-	06/2017 Proiektua: Lurzorua: Har dezagun lurzorurako kutsagarriak izan daitezkeen jarduera edo instalazioak dauzkaten lurzoruen inbentarioa, eta ikuska dezagun zer egiten den han agertzen diren kokalekuetan.	11
5.	HELBURUA: INGURUMEN-ARLOKO ARAZOAK KONPONTZEN EDO KONTROLATZEN LAGUNTZEA.....	12
2.2.7.-	07/2017 Proiektua: Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak eten ostean	12
2.2.8.-	08/2017 proiektua: Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea	13
2.2.9.-	09/2017 Proiektua: Industria guneen jarraipena	13
7.	HELBURUA: ABISUEN (KEXAK, SALAKETAK, GORABEHERAK..) ETA PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENEN KUDEAKETA... 13	
2.2.10.-	10/2017 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	14
9.	HELBURUA: IKUSKAPEN-AHALMENA HANDITZEA.	14
10.	HELBURUA: IKUSKAPENAK EUROPAKO TESTUINGURUAREN ARABERA EGITEA.....	14
3.	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.	14
4.	INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	15
5.	KONTROL-PLANA.	15
6.	INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.	15
7.	INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.	15

1. SARRERA

2017an aurrera eramango diren proiektuak zehaztea du xede 2017ko programak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzaren **2017-2018 Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Plana** eta arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzeko. Horretarako, Planaren helburu estrategikoak aintzat hartuko dituzte 2017an aurrera eramango diren proiektuek, eta xehetasun operatiboak, ekintza-plana eta egingo den jarraipena jasoko dira haien oinarritzko agirietan. Programa horrek, nagusiki, proiektuen helburuak eta xedeak jasotzen ditu, eta helburu estrategikoekin duen lotura ere bai.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 EB Erregelamenduak, mugaz gaindiko hondakinen lekualdaketei buruzko 1013/2006 (EE) Erregelamendua aldatzen duenak, ezartzen du estatu kideek ikuskapen-planak onartu behar dituztela, beranduenez 2017ko urtarrilaren 1ean, hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketak barne hartuta. Indarrean dagoen planak, bere helburuen artean, honako hau jasotzen du: *“Sortzen dituzten hondakinen kopurua edo arriskugarritasuna dela eta, ingurumenerako arrisku handiena duten jarduerak hondakinen kudeaketako araudia betetzea”*. Hondakinak lekualdatzeko proiektu espezifiko batzuk, Planean jaso beharreko batzuk alegia, 2015eko eta 2016ko programetan gauzatu ziren, REDIA sarearekin lankidetzan (Ingurumena Ikuskatzeko Sarea) eta ingurumenean eskumena duen ministerioaren eta zenbait autonomia-erkidegoren parte-hartzearekin. Kontuan hartuta, gainera, aurten Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plan berri bat egitea aurreikusten dela, eta indarrean dagoen planak plan hori urteko programen bidez berrikusteko aukera ezartzen duela, 2017ko honetan 660/2014 EB Erregelamendua betetzeko egin beharreko aldaketak egingo dira.

2. 2011-2018 ALDIRAKO INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PLANA BERRIKUSTEA

Har dezagun Planaren helburu hau: *“Beren kantitate edo arriskugarritasunagatik ingurumenerako arrisku handiagoa dutenek hondakinak kudeatzeko araudia betetzea”*; bada, aurrerantzean, gainera -xedearen parte izango da-, bermatu beharko da betetzen direla bai hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketei buruzko araudia bai arlo horretan emandako administrazio-egintzetan ezarritako betekizunak; eta xedearen parte izango da orobat aplikatu beharreko araudiaren aurkako hondakinen mugaz gaindiko lekualdatze-jarduketak detektatzea, Ingurumenaren eta osasunaren babesa bermatzearren, hori baita azken helburua. Plan honen barnean geratzen da, berariaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta beste herrialde batzuen artean egiten diren hondakin-lekualdatzeen kontrola eta ikuskapena, kontuan izanda uztailearen 28ko 22/2011 Legearen (hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoaren) 12. artikuluan ezarritako eskumen-banaketa eta ezar daitezkeen erakundeen arteko lankidetzak.

Hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeen ikuskapenek **helburu orokor** hauek izango dituzte, alde batera utzi gabe urteko programetan zehazten diren helburu espezifikoak:

- Hondakinak lekualdatzeko araudi europarrean ezarritako helburuak autonomia-erkidegoan bete daitezela sustatzea, zehazki 2006ko ekainaren 13ko 1013/2006 (EB) Erregelamenduan ezarritakoak.
- Hondakinak mugaz gaindi lekualdatzeari dagokionez, uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritako helburuak betetzea, han baitago arauturik hondakin eta lurzoru kutsatuen gaia.
- Hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketei, balorizazioari edo deuseztatzeari aplikagarri zaien araudiaren betetze-maila egiaztatzea horretan diharduten establezimendu, enpresa, agente, negoziatzaile eta garraiolarietan.
- Araudiaren aurkako hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeak, baita hondakinen legez kontrako lekualdatzeak ere, detektatzea eta, kasua balitz, kontrolatzea, enfasi berezia jarriz ingurumenarekiko arrisku handiena dutenetan, kontuan izanda hondakinen kopuruak eta arriskugarritasuna, araudia gehien betetzen ez dutenak edo informazio gutxien eman dutenak.
- Legeria maila optimoan betetzea, bereziki, prebentzioaren eta informazioaren bidez.

Azken helburua da bermatzea araudia betetzen dela Europar Batasunaren lurraldean, eta ondorioz ziurtatzea ingurumena eta giza osasuna babesten direla.

Hondakinak mugaz gaindi garraiatzen direnean, esku hartzen duten establezimenduek, enpresek, negoziatzaileek, agenteek edo garraiolariak zer egiten duten **ikuskatu** daiteke, kasu hauetan:

1. Planaren pean dagoen lurralde-eremuko lekuren batetik badatoz hondakinak, edo lurralde horretako lekuren batera baldin badoaz.
2. Garraio-lana Planaren lurralde-eremuan egiten ari den bitartean, dela errepide, trenbide, ibai edo itsasoz.

Ikuskapenen **lehentasunak ezarriko dira** arriskuen ebaluazio batean oinarrituta. Ebaluazio horrek bere barnean hartuko ditu hondakinen fluxuak eta legez kontrako lekualdatze-iturri espezifikoak, eta kontuan izango dira, hala dagokionean eta horiek eskura daudenean, informazio-zerbitzuek jasotako datuak, esaterako, polizia- eta aduana-ikerketei buruzko ikerketak eta delitu-jardueren analisia. Ebaluazio horren helburua izango da, besteak beste, eskatuko diren ikuskapenen gutxieneko kopurua zehaztea, establezimendu, enpresa, negoziatzaile eta hondakinen lekualdatzeetako edo dagokien balorizazio edo ezabaketako kontrol fisikoak barne. Halere, lehenengo urteak metodologia aplikatzeko behar den informazioa jasotzeko izango dira.

Indarrean dagoen araudiak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku uzten ditu, besteak beste, **eskumen hauek**:

- Hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak baimentzea, zaintzea, ikuskatzea eta zigortzea.
- Hondakinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 (EE) Erregelamenduan araututa daudenak baldin badira, eta hondakinok Europar Batasuneko herrialdeetatik badatoz edo herrialdeotara badoaz, hondakinak lekualdatzeko baimena ematea, ikuskapena egitea eta, beharrezkoa bada, zigorra jartzea.

- Zaintzeko eta ikuskatzeko ahala eta zehatzeko ahala erabiltzea, bere eskumenen esparruan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari esleitzen dizkio ingurumenean eragina duten jarduerak zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak.

Agintarien arteko elkarlan-tresnak zehaztea ezinbesteko alderdia da ikuskapenen efikazia hobetzeko. Kasu honetan, mugaz gaindiko hondakin-garraioan eskumenak dituzten administrazio publikoak identifikatzeko lanean ari gara, haien arteko lankidetzak bideratzeko. Lankidetzak hori kontuan hartuko da bai ikuskapena bera garatzeko, bai informazioa eta jardunbide egokiak trukatzeko. Autonomia-erkidegoen eta Ingurumen-arloko eskumenak dituen ministerioaren kasuan, ofizialki ezarritako moduan artikulatuko da. Dagokien agintari administratiboen arteko lankidetzak mekanismoak Ikuskapen Plan honekiko independenteak diren prozeduretan garatuko dira eta horiek, kasua balitz, planaren zati izan daitezke.

Lankidetzak-tresnen artean, Ingurumena Ikuskatzeko Sarea (REDIA) dago. Tresna bat da sare hori, autonomia-erkidegoetan ingurumen-ikuskapenak egiteko ardura dutenen artean lankidetzan aritzeko eta esperientziak trukatzeko. Foro iraunkor bat darabil, parte hartzeko eta ingurumen-ikuskapenaren arloko ezagutzak eta esperientziak trukatzeko, eta denon intereseko proiektuak egiteko ere balio du. Europan, IMPEL Sareak antzeko eginkizuna betetzen du lankidetzan eta informazioa eta esperientziak trukatzeko.

Urteko txostenei dagokienez, urteko hirugarren hiruhilekoa amaitu baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak txosten bat bidaliko dio Ministerioko Hondakinen Zuzendariordetza Nagusiari, 1013/2006 (EE) Erregelamenduaren IX. eranskineko galdetegi gehigarrian oinarrituta (660/2014 (EE) Erregelamendua aldatua), ingurumenaren arloan eskumena duen ministerioak erregelamendu horren 50. artikulua dakarrena bete dezan.

Urtea amaitu ondoren, hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzak argitaratu egingo du, besteak beste, Internet bidez, 24. artikuluari eta 50. artikuluari buruzko (1.,2. eta 2.bis apartatuak) txosten-zatia, baita IX. eranskinaren 5. taula ere, egokitzen jotzen duen edozein azalpenekin batera.

3. 2017ko PROGRAMAREN HELBURUAK

2017ko Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programa oinarrituta dago funtsezko zutabe hauetan:

- a) **IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak¹.**

¹ Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremuko jarduerak.

2016an, hiru urteko lehen ikuskapen-zikloa itxi zen, eta betetze-mailan hobekuntza nabarmena lortu da. Atal honen helburua da, oraindik ere, jarduerak betetze maila altua mantentzeko laguntzea, administrazioak ahalik eta ahalegin txikiena egin behar izanda, hartara baliabideak optimizatzeko eta lehentasunezko beste arlo batzuei ekiteko.

b) IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.

Aurreko urteetan IPPC ez diren jardueretan ILEen laguntzarekin egin diren jarduketek emaitza ona eman dute betetze-mailaren hobekuntzan. Horregatik, ekitaldi honetan, ikuskapena IPPC ez diren jarduera-talde berrietara zabaltzea eta aurreko urteetako jardueren jarraipena egiten jarraitzea aurreikusten da.

c) Administrazioaren Erakunde Kolaboratzaileak (ILE).

2017an, ILEek atmosferara zer-zenbat isurtzen duten kontrolatzeko atmosferara egindako emisioak kontrolatzeko ILEen ikusketak egiten jarraituko dugu.

d) Hondakinak kudeatzen nahiz sortzen dituzten jarduerak eta lurzoruetan baimendutako esku-hartzeak kontrolatzea.

Aurreko urteetako esperientzia kontuan hartuta, hainbat hondakin-korrontetan egingo dira ikuskapen-kanpainak, honako arlo hauek nabarmenduta: eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH), tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEH) eta erabiltzen ez diren ibilgailuak (EEI). Era berean, mugaz gaindiko tokialdaketetarako proiektu espezifikoak gauzatzen hasiko gara, eta lehentasunezko eremutzat hartuko dira EBko hondakinak Estatura sartzeko puntuak, tokialdaketak eta beste administrazio batzuetako komunikazioak.

Lurzoruetan baimendutako esku-hartzeak ikuskatzeko 2016ko proiektuaren gauzatze-maila txikia izan zen. Ekitaldi honetan, arlo horretan hainbat ikuskapen egingo da, esku-hartzeak indarrean dagoen araudiaren eta baimenen arabera egin daitezzen.

e) Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.

2017an, hiru proiektu gauzatuko dira ingurumeneko arazoak konpontzeko edo arintzeko xedez:

- Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak eten ostean. Etenen ari diren jardueren kopurua nabarmen jaitsi da, ingurumen-alderdien kudeaketa argirik izan ez duten jardueretan, baina haiei lotutako ingurumen-arriskua handia da.
- Pasaiako Badiaren ingurunean ingurumen-ekintzen plana zenbateraino betetzen den jakiteko jarraipena egitea.
- Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa. Horiek zerikusia dute kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, noiznahi egon dadin informazioa jasotzeko eta ebaluatzeko aukera, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak gutxitzeko komeni diren jarduerak hastekoa ere.

2.1.- 2017ko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Taula honek 2017rako programatutako proiektuak jasotzen ditu, Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoak garatzeko.

Planaren helburu estrategikoa	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
IPPC jarduerak ikuskatzea (3.1.i atala)	2017/01	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak Betetze-maila baxuena duten, ingurumenari gehien eragiten dioten edo arrisku handiena duten enpresen jarraipen espezifikoa IPPC jarduera berrien ikuskapena, abian jartzen direnetik urte betera
	2017/02	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	Aurreko urtean ikuskatutako enpresen betetze-maila areagotzea betetze-maila handira edo ertain-handira. IPPC ez diren jarduera-multzo berrien ikuskapena.
IPPC ez diren arrisku handieneko jarduerak ikuskatzea (3.1.ii atala)	2017/03	ILEak ikuskatzea	Atmosferara egindako emisioen kontrol ofizialak egiten dituzten ILEak ikuskatzea
	2017/04	Hondakinen kudeaketa kontrolatzea	Hondakin-korrante batzuk ikuskatzeko kanpainak egitea: EEH, TEEH eta EEI...
Hondakinen eta lurzoruen kudeaketa (3.1.iv atala)	2017/05	Hondakinen lekualdaketa	Erkidegoko hondakinen sarrera-puntuak, lekualdaketak eta operadoreak ikuskatzea.
	2017/06	Lurzorua: baimendutako jarduerak	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan jasotako kokapenetan lurzoruen araudi-esparruan baimentzen diren jarduerak ikuskatzea
	2017/07	Hondakin arriskutsuak (HA) eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
Ingurumen-arazoak (3.1.v atala)	2017/08	Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea	Pasaiaiko Badiaren ingurunean erakundeen arteko ingurumen-ekintzen planari jarraipena egitea
	2017/09	Industria-guneen segimendua	Lurralde bakoitzeko industriaalde garrantzitsuak gainbegiratzea aurretiaz ohartarazi gabe, legez kontrako ingurumen-jarduerak identifikatzeko eta IPPC ez diren jardueren ikuskapeneko proiektuan sar daitezkeen jarduerari buruzko informazioa biltzeko.
	2017/10	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Intzidentzietan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko 24 orduko erantzun-zerbitzua. Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboen aurrean
Abisuak/larrialdiak kudeatzea (3.1.vii atala)			

Proiektu guztiak dokumentu batean garatzen dira, egitura honekin:

1.	<i>Aurrekariak</i>
2.	<i>Proiektu mota</i>
3.	<i>Helburu espezifikoak eta xedeak</i>
4.	<i>Jarduera-plana</i>
5.	<i>Adierazleak</i>
6.	<i>Baliabideak</i>
7.	<i>Jarraipena</i>
8.	<i>Kronograma</i>
9.	<i>Eranskinak</i>

2.2.- 2017ko ikuskapen-proiektuak: helburu espezifikoak eta xedeak.

Jarraian, proiektuen berariazko helburuak eta xedeak zehazten dira, **Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategiko** bakoitzaren barruan.

1. helburua: IPPC jarduerak araudia jarraitasunez betetzea.

Helburu estrategiko honek lotura estua du «IPPC jardueren ikuskapena» izeneko hainbat urtetarako proiektuarekin.

2.2.1.- 01/2017 Proiektua: IPPC jardueren segimendua ikuskatzea

2016an, publikatu zen 1/2016 Legegintzako EDa, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Araudi horren aplikazio-eremuko instalazioak (IPPC jarduerak) ikuskapen-plan batean sartuta egon behar dira 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera. Urriaren 18ko 815/2013 EDaren arabera, IPPC jarduera horietara bisitak egiteko maiztasuna arriskuen ebaluazio batean oinarrituko da, eta ez du urtebete gaindituko arrisku handienak planteatzen dituzten instalazioetan, eta hiru urte arrisku txikiak planteatzen dituztenetan. Beraz, instalazio guztiak ikustera joan garen lehen hiru-urtekoa 2016an itxi da. Epe horretan, ikusi da askoz hobeto ari dela betetzen araudia, eta, horri esker, administrazioak geroz eta ahalegin txikiagoa egin behar duela jarduera horiek ikuskatzen, ari garela helburu horretan aurrera egiten, eta, horrela, baliabide gehiago esleitu ahal zaizkie lehentasunezko beste arlo batzuei.

2017ko ikuskapenak, berriz, arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera programatuko dira. Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean dago argitaratuta², programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera.

2017an, honako enpresa hauek ikuskatuko dira: urtebeteko maiztasuna ezarrita daukaten 37 enpresa, bi urteko maiztasuna ezarrita daukaten 46 enpresa, hiru urteko

² <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informacion/procedimientos-de-inspeccion-ambiental/r49-3252/es/>

maiztasuna ezarrita daukaten 32 enpresa, arazo zehatzak dituzten 4 enpresa eta aurrez ebaluaziorik ez duten 4 enpresa. Orotara, 123 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

Jarduera-sektoreen arabera, honela sailkatu dira 2017an programatutako jarduerak:

IPPC KODEA	JARDUERA SEKTOREA	PROGRAMATUTAKO JARDUEREN KOPURUA
1	Errekuntza-instalazioak	4
2	Metalen ekoizpena eta eraldaketa	52
3	Mineralen industriak	6
4	Kimika-industriak	10
5	Hondakinen kudeaketa	30
6	Zuretik eratorritako industria	9
9	Nekazaritzako elikagaien industria eta abeltzaintzako ustiategiak	8
10	Disolbatzaile organikoen kontsumoa	4
	GUZTIRA	123

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea.
- Desbideratze larritzat eta nabarmentzat sailkatuak zuzentzea sei hilabete baino gutxiagoan eta betetze-maila baxua duten jarduerak goragoko kategorietara igarotzea urtebetean baino gutxiagoan.
- Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
- IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.

2. helburua: Arrisku handiena duten eta IPPC ez diren jarduerak ingurumen-araudia betetzea.

2.2.2.- 02/2017 Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua

Aurreko urtean ezarritako sistemarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta hasiera batean kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen da. Hala, aurreikusi da 120 enpresa ikuskatzea. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik ateratako datuak ustiatuko dira, eta jarraipena egingo da ez-betetzeak zituzten eta errekerimenduak bidali zitzaizkien enpresa guztietan.

Proiektu hau urte askotakoa da, eta 2014an hasi ziren haren jarduerak. Proiektu honekin lotura duten zenbait jarduera Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dituzte, eta gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesa izango dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- 2016an ikuskatutako IPPC ez diren enpresatitik, % 95ek araudiarekiko betetze-maila ertaina, ertain-handia eta handia dute.
- 2016an ikuskatu diren eta IPPC ez diren enpresen kopurua % 10era mugatzea, zehazki, aurreko ekitaldian ikuskatutako enpresetan eginiko jarraipenaren ostean betetze-maila moderatuak izan dituzten enpresetan. Ez-betetze horiek gehienbat administrazio-arlokoak dira.
- IPPC ez diren 120 jarduera berri ikuskatzea.

2.2.3.- 03/2017 Proiektua: ILEak ikuskatzea

Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren (AKDJ) kontrol-eremuan, Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) jarduera ikuskatzen da 2014az geroztik, kontrolen adierazgarritasuna eta aplikatu beharreko arautegia betetzen dituztela egiaztatzeko xedez.

Denbora horretan zehar, ikuskapenerako lagungarria den dokumentazioa garatu da, kutsatzaile batzuei aplikatu beharreko neurketa-arauei dagokienez. 2017an, kutsatzaile gehiagotarako dokumentazio lagungarria prestatuko da, eta ILEak ikuskatuko dira, hainbat jarduera-sektoretan edo lehenago ikuskatu gabeko kutsatzaileetarako.

Era berean, Ikuskapen Zerbitzuak ILE-kontrolen programazioa ere berrikusiko du, emisio kutsatzaileak direla-eta ingurumen-arazoak dituzten jardueretan; hartara Zerbitzuko teknikariek in situ egiaztatuko dute zer baldintza operatibotan egiten diren ILE kontrolak.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- ILEek fokuen neurketarako ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea.
- ILEen kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzea, bereziki, airearen ingurumen-bektorean ingurumen-arazoak dituzten jardueretan.
- ILEei egindako ikuskapenak eta haien irismena sistematizatzea.

4. helburua: Hondakin eta lurzoruen araudia betetzea.

Arlo honetan batez ere zer egingo den? Lehentasunezkoztat jotzen diren hondakin-korranteetan ikuskapen-kanpainak egingo dira araudia betetzen den ikusteko, hondakinen mugaz gaindiko lekualdaketen ikuskapena abiaraziko da, eta, lurzoruei dagokienez, inbentarioan jasotako kokalekuetan baimendutako jarduketak egiaztatzen hasiko gara.

2.2.4.- 04/2017 Proiektua: Hondakinen kudeaketa kontrolatzea

Proiektu honen baitan, beste ekitaldi batzuetan hasitako ekintzekin jarraitu nahi da, eta nagusiki honako hondakin-korrante hauetan zentratuko gara: eraikuntzako eta

eraiispeneko hondakinak, erabiltzen ez diren ibilgailuak eta tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak. Korrante horiek kasuistika espezifiko bat dute, eta, horren ondorioz, ez-betetzeak detektatzeko probabilitatea handiagoa da.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Identifikatzea obra eraikuntza eta eraiispenetako hondakinen baimendu gabeko kudeaketa eta erabilerak obra handietan eta kontrolatzeko ikuskapen-ekintzak.
- Erabiltzen ez diren ibilgailuekin loturik, baimenduta ez dauden kudeaketa-guneak identifikatzea, eta, legeztatzen ez diren arte, horiek geraraztea.
- TEEHen kudeatzaileek otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko hartu behar dituzten neurriak ikuskatzea (Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen gainekoa da dekretu hori).

2.2.5.- 05/2017 Proiektua: Hondakinen lekualdaketa

2016an, REDIaren esparruan beste autonomia-erkidego batzuekin eta ministerioarekin lan egin da, maiatzaren 15eko 660/2014 EB Erregelamendua beteko duten ikuskapen-plan eta -programen oinarriak eta koordinazioa ezartzeko. 2017rako helburu nagusia hondakinen mugaz gaindiko lekualdatzeak ikuskatzeko jarduerari ekitea da, baina programaturik.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Hondakinak inportatzen/esportatzen dituzten operadoreetan programatutako ikuskapenak. 7 ikuskapen egingo dira 2016an bildutako informazioan identifikatu diren operadoreei.
- Portuetan programatu diren ikuskapenak. Bilboko portuan eta Pasaiako portuan egingo dira ikuskapenak.
- Errepideetan programatu diren ikuskapenak. Errepideetan ere egingo dira ikuskapenak. Ertzaintzarekin koordinaturik egingo dira ikuskapen-lanak.
- Legez kanpoko mugimenduak atzematea. Mugaz gaindiko hondakin-tokialdaketen ikuskapen-planen barruan programatu diren ikuskapenetarako prozedura orokorra aplikatzen jarraituko da IPPC jarraipen-ikuskapenetan eta IPPC ez direnetan, hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreak identifikatze aldera.
- Hondakinak tokialdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa biltzeko prozedurarekin jarraituko da.

2.2.6.- 06/2017 Proiektua: Lurzoruak: Har dezagun lurzorurako kutsagarriak izan daitezkeen jarduera edo instalazioak dauzkaten lurzoruen inbentarioa, eta ikuska dezagun zer egiten den han agertzen diren kokalekuetan.

Lurzoruaren kutsadura prebenitzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorrean indarrean dagoen araudian³dago ezarrita administrazioak zer nola egin behar duen lurzorua kutsa

³ 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa

dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan⁴ dauden kokalekuetan zer egiten den kontrolatzeko. 2016an, informazio-bilketa eta prozedura-prestaketa egin zen, leku horietan jarduteko baimenak ikuskatzeko. Ekitaldi honetan hasiko gara ikuskaketak egiten.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Ziurtatzea hondeaketa-lanak Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak emandako baimen-ebazpenen arabera egiten direla.
- Egiatzea hondeatutako lurren azken destinoak baimenaren edo indarreko araudiaren baldintzak betetzen dituela.

5. helburua: Ingurumen-arloko arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea

Planaren helburu estrategiko hau Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzera bideratutako kudeaketara ondoen egokitzen den helburuetako bat da, batez ere industria-jardueren ingurumen-arloko arazoak konpontzeko laguntza esanguratsua den kasuetan (kontuan hartuta gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak). Urte batzuk badira jada hurbilpen horrekin lan egiten dela, eta emaitza onak lortzen ari dira. 2017. urteari dagokionez, aurreko urteetan abian jarritako edo planteatutako zenbait proiektuekin aurrera jarraituko da, eta industrialdeen segimendua egiteko berri bati ekingo zaio.

Jarraian, helburu estrategiko honekin loturiko proiektuetarako helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira:

2.2.7.- 07/2017 Proiektua: Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak eten ostean

2016an zehar, antzeman genuen proiektuan sartzen ziren etete-espediente berrien kopurua murriztu egin zela, ziurrenik industria-jardueren egoera sozioekonomikoa bera ere aldatu egin zelako aurreko urteekiko. Aurreko ekitaldietan bezala, konkurtso-prozedurek eragiten dituzten etete-kasu gehienek egoera juridiko berezia dute, eta, ondorioz, Sailburuordetzak arriskuaren kudeaketa sustatzeko asmoz burutzen dituen jarduerak arrakasta-maila desberdina izaten dute.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Administrazioaren esku-hartzea neurri egokiak hartze aldera aurreko urteetan ikuskatutako eta arrisku handikotzat sailkatutako jardueretan arriskuak kontrolatzeko.
- Jarduera eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta materialak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.
- Behin-behinean edo behin betiko eten diren jardueren ingurumen-arriskua identifikatzeko eta kontrolatzeko sistematika mantentzea eta optimizatzea.

⁴ 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

2.2.8.- 08/2017 proiektua: Pasaiaiko Badiaren leheneratzea sustatzea

Proiektu horrek erakundeen arteko ekintza-plan bat gauzatzea aurreikusten du. Plan horretan hauek parte hartzen dute: Ingurumen Sailburuordetzak, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendaritza ordeak, Donostiako, Pasaiaiko, Lezoko eta Errenteriako udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Portu Agintaritzak.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Airearen kalitate- eta zarata-maila onargarriak izatea portu-inguruetan, bai eta badiako uren kalitatean ere.
- Airearen kalitatearen eta zarataren arloan herritarrei eragiten zaizkien eragozpenak sortzen dituzten gertaerak kontrolatzea, bai eta badiara egiten diren isurketena ere.
- Administrazio guztien jardun koordinatua, Pasaiaiko badiaren egoerari buruzko txostenean atzemandako ekintzak betetzeko sortutako mahaiaren bidez.

2.2.9.- 09/2017 Proiektua: Industria guneen jarraipena

Aurreko urteetako esperientziak agerian uzten du ikuskapen-ahalegin handiagoa egin behar dela administrazioaren ohiko zerrendetan ez dauden arloetan edo jardueretan. Horregatik, hiru lurraldeetako poligonoetara ausazko zaintza-bisitak egitea planteatzen da, legez kanpoko jarduerak edo ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeenak identifikatzeko.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Ikuskatutako industrialdeetan dauden instalazioak detektatzea, zeinak IPPC ez diren instalazioen ikuskapen-zerrendetan sar daitezkeen.
- Ingurumenari kalte egiten dioten enpresen ohiko jarduerak ekiditea, hala nola igorpen lausoak, kontrolik gabeko isurketak egiteko arriskua, hondakin (arriskutsuen eta ez-arriskutsuen) kudeaketa eta/edo biltegitratzea, inbentarioan sartutako kokalekuetako lurzoruetan jarduerak burutzea eta ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen beste jarduera batzuk.

7. helburua: Abisuen (kexak, salaketak, gorabeherak..) eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa.

Helburu estrategiko horretarako, hainbat urtetako proiektua ezarri da. Proiektuaren garapena honako hau erdiestera bideratuta dago: ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak dituztenak abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, haietan sortutako hondakinak kudeatzeko. Laguntza jarduleei ILE I. maila emango zaie, urriaren 16ko 212/2012 Dekretua betez, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena, Administrazioak kontratatutako jardueretarako.

2.2.10.- 10/2017 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa

Salaketetatik eratorritako abisuen, SOS-DEIAKen abisuen, gertakarien, istripuen eta abarren erantzuna gero eta garrantzitsuagoa da araudiaren betetze-maila areagotzen doan heinean; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa hartzen hasi dira normala ez den funtzionamendu-egoeretatik eratorritako ingurumen-eraginak.

Helburu espezifikoak eta xedeak:

- Urteko 365 egunetan, 24 orduz, ingurumenari buruzko abisuen erantzun eraginkorra kudeatzea.
- Abisuak sartzeko bideak, kudeaketa-prozedurak eta egindako jardueren dokumentazioa hobetzea, horiek aldeztu aurretik aztertu ondoren.
- Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboen planetarako erantzuna antolatzea.
- Abisuetan inplikaturako sailekin koordinazioa hobetzea.

9. helburua: Ikuskapen-ahalmena handitzea.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren muga nagusia proiektuak gauzatzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, garrantzitsuena da eragin biderkatzailea sortzea da, ikuskapen-ahalmena optimizatzeko. Horretarako, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatuko dira, eta Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak ikuskapenaren osagarri eta laguntza gisa erabiliko dira.

Jarraian, eremu honetako zenbait jarduera-ildo azaltzen dira:

- Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoeren karakterizazio analitikorako. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

10. helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea.

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak egokitzea estatuko nahiz Europako testuinguruari, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko; besteak beste, araudia egiteko irizpideetan eta ikuskapenak egiteari dagozkionetan. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.

2017. urtean, Ikuskapen Zerbitzuan aurreko urtean zegoen egiturarekin jarraituko da. Honako hauek egongo dira: zerbitzuburu bat, 8 ikuskari tekniko, aholkularitza juridikoa

eta laguntza administratiboa. Bi ikuskapen-teknikari Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa) eta beste lau Arabako Lurralde Historikoan (Gasteizen dute bulegoa, Lakuan).

Dauden baliabideetara egokituta daude programatutako jarduerak, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere egiten diren lanetarako gaitasun teknikoa ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa, eta 2011-2018ko Ingurumen Ikuspenerako eta Kontrolerako Planetik ateratako zuzentarauekin bat etorritz, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2017. urteko ikuskapen-programan sartutako jarduera batzuk egiteko laguntza gisa.

4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

2016an zehar, elektronikoki kudeatu eta izapidetu dira Ikuskapen Zerbitzuari lotutako ia administrazio-prozedura guztiak. Ikuskapen-txostenak elektronikoki artxibatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Sistema Orokorrean, ezarritako irizpideak betez.

Arlo horretako 2017rako jarduerak oinarri hau izango dute:

- Ikuskapenari lotutako datuen kontsulta eta ustiapena hobetzea, eta baita Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuetako erabiltzaileen irisgarritasuna ere.
- Sailburuordetzaren beste administrazio-unitate batzuen informazioaren eskuragarritasuna hobetzea.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

5. KONTROL-PLANA.

Kontrolari dagokionez, beste urteetako esperientzian oinarrituta, ILEen laguntza teknikoa mantenduko da IPPC ez diren jardueren araudia eta baimenak betetzen direla egiaztatzeko. Isurtzeak kontrolatzeari dagokionez, ILEen arauzko kontrolei jarraipena egitea planteatu da, IPPC diren edo ez diren jardueren ikuskapen-proiektuen lehentasunak oinarri hartuta.

6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.

2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedientei dagokienez.

7. INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektu bakoitzean gauzatze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen jarraipena egitea ahalbidetuko dute. Oinarritzko irizpide gisa, proiektuen segimendua, gutxienez, sei hilean behin egitea planteatu da aurten.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira guztiz garatzeko aipatutako Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hasia proposatu da, gainerakoak aurrera eramateko baliabideen arabera.

Barneko segimenduak programaren gauzatzea doitzen joatea ahalbidetuko du, lehentasuna emanez ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei. Jarraipen hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek hartuko dute parte.